



Klima Aldaketaren aurkako 2050rako Euskal Strategiari buruzko Galderak eta Erantzunak

2015eko urtarrila



Alderdi orokorrak

1. Galdera: Zer da Klima Aldaketaren aurkako Euskal Estrategia (KAEE)?

KAEEa plangintza-tresna bat da, Euskadiren jarduna gidatuko duena 2050ra arte, bai klima-aldaketa moteltzeko eta bai berak sortzen duen egoerara egokitzeko. Plangintzak bitarteko helburuak jartzen ditu 2020 eta 2030 urteetarako.

2. Galdera: Zergatik da beharrezkoa KAEE bat?

Klima-aldaketa fenomeno konplexu eta global bat da, eragile eta sektore askotan txertatuta dagoena eta, hortaz, erantzun zabal eta koordinatua eskatzen duena. Herrialde gisa badugu nolabaiteko erantzukizuna haren balizko efektuetan, eta, horrenbestez, orain emititzen ditugun berotegi-efektuko gasak murrizteaz arduratu behar dugu; horrekin batera, gure lurralde eta gizartearen egokitzapena aurreratu behar dugu, eta solidariook izan behar dugu egoera txarragoan dauden herrialdeekin.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzak uste du Administrazio Publikoaren eginkizuna funtsezkoa dela, bai erantzun bateratua egituratzeko eta biltzeko beharregatik eta bai bere ekintzek herritarrengan eta gainerako eragileengan duten eraginagatik ere.

3. Galdera: Badago antzeko esperientziarik beste herrialde/eskualderen batean?

Bai estatu mailan eta bai eskualde mailan, gurearen antzeko ekimenak ugari dira; adibidez: Alemania, Australia, Brasil, Danimarka, Espainia, Estatu Batuak, Erresuma Batua, Katalunia, Andaluzia, Madril, Gaztela eta Leon, Aragoi, eta abar.

4. Galdera: zein da Klima Aldaketaren aurkako Euskal Estrategiaren jatorria?

2002-2020rako garapen jasangarrirako euskal ingurumen-estrategia, Ingurumen Esparru Programak eta 2008-2012 epealdirako Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana bera hainbat mekanismo, neurri eta jardueraren jatorria izan dira; hala, mekanismo, neurri eta jarduera horiek oso laguntza eraginkorra eman dute Euskadi kokatzeko klima-politiken alorrean aurreratuta dauden europar eskualdeen artean. Izan ere, horren bidez modu eraginkorrean aurre egin zaie berotegi-efektuko gasen emisioei, eta, horri lotuta, klima-aldaketaren inpaktuetara egokitzeko prozesuaren oinarriak jarri dira.

Orain dela gutxi, EAEko 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programak (IEP 2020) jaso du, bere 2. helburu estrategikoan (ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono isurketa txikiko



eta baliabideen erabilpenean eraginkor bihurtzea), Klima Aldaketaren Euskal Estrategia lantzeko asmoa, datozen urteotako jardunaren norabidea ezartzeko.

5. Galdera: Zer neurritan gauzatu dira aurreko Estrategiak / Planak? Eraginkorrak izan dira?

2008-2012 epealdirako Klima Aldaketaren aurkako Euskal Planak eta horren osteko ebaluazioak erakutsi dutenez, ezarritako helburuak bete egin dira, planteatutako helburu kuantitatiboen lorpenaren ikuspuntutik:

- Berotegi-efektuko gasen emisioak mugatzeko helburua lortu da; hala, 1990eko emisio maila erreferentziatzat hartuta, emisioen maila +% 4 izan da; Planak ezarri zuen helburua, berriz, +% 14 zen.
- Planaren garaian, nabarmentzekoa da berotegi-efektuko gasen emisioek izandako murrizketa, batez ere energia, garraio eta industria sektoreetan.
- Karbono-hustubideei buruzko helburua gainditu da; izan ere, garai horretan % 1,5eko ezabaketa lortu da; Planak, berriz, % 1eko ezabaketa ezarri zuen helburu gisa.
- Planean aurreikusitako ekintzen % 74 gauzatu da.

6. Galdera: Nola lotzen da KAEEa 2020rako Ingurumen Esparru Programarekin?

2050erako KAEEaren helburu estrategikoen definiziorako, kontuan hartu dira bai Europako helburuak eta bide-orriak eta bai 2020rako IEPan adierazitakoa eta aurreko plangintzaren helburuak, hots, 2008-2012 epealdirako Klima Aldaketaren aurkako Euskal Planaren helburuak. Alde horretatik, KAEEaren helburuek badute lotura estua 2020rako IEPan ezarritako helburu estrategiko hauekin:

- 1.HE. Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta lehengoratzea, ekosistemek eskaintzen dizkiguten zerbitzuak zaintzeko.
- 2.HE. Euskadi ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono isurketa txikiko eta baliabideen erabilpenean eraginkor bihurtzea.
- 5.HE. Politiken koherentzia bermatzea, ingurumen-integrazioa eta erantzunkidetasun publiko-pribatua areagotuz.

7. Galdera: Nork lantzen du Estrategia?

Eusko Jaurlaritza da Estrategiaren eragilea; dokumentua lantzeko arduradunak, berriz, hauek dira: Eusko Jaurlaritzaren Sail ia guztiak, Eusko Jaurlaritzaren mende dauden hainbat sozietate eta erakunde publiko, Foru Aldundiak, hiru hiriburu-udalak eta EUDEL.

8. Galdera: Zergatik behar dugu Estrategia hau?

Arrazoi hauengatik...



- 2020rako IEPan ezarrita dagoen konpromiso bat da.
- Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Esparru Konbentzioaren baitan Liman orain dela gutxi egin den COP 20 konferentzian adostu zenez, herrialde bakoitzak bere ekarpena landu behar du klimari buruzko ekintzarako.
- Euskal gizartearen eragile guztiek klima-aldaketaren aurrean hartu duten konpromisoa islatuko du, erantzunkidetasunez, zeharkakotasunez eta modu integralean.
- Klima-aldaketa moteltzera eta berak sortutako egoerara egokitzera zuzendutako tokiko politikak txertatuko ditu lurralde eta hirigintza politiken baitan. Horren helburua da gure hiriak eta gure lurraldeak ez izatea hain urrakorrak etorkizuneko klimaren ondorioen aurrean.
- Osasun publikoa eta kapital naturalaren babesa hobetuko dira; eta klima-aldaketaren ondorioen inguruko hezkuntza, prestakuntza eta kontzientziazio maila igoko du euskal herritarren artean.
- Berrikuntza, jarduera ekonomikoaren sorrera eta enplegua sustatuko ditu, eta baita ekintzaitza ekonomiko eta soziala ere.
- Baliagarria izango da ezagutzaren sorrera Euskadin antolatzeke, alor horretako ikerketa-ildoak orientatuz eta koordinatuz, lortzen diren emaitzak lagungarriak izan daitezen erabaki egokiak hartzeko.

9. Galdera: Zergatik 2050erako Estrategia bat?

- Europako Batasunaren Ingurumen Ekintzarako Programekin bat egiteko; zehazkiago, 2050ean ekonomia hipokarboniko lehiakorra izatera zuzendutako Bide-orriarekin bat egiteko.
- Ingurumen- eta gizarte-sistemez gain, eskualdeetako sektore ekonomikoak berak ere klima-aldaketaren mehatxupearan daudelako eta maila globalean eta Europa mailan inplementatutako politiken eraginpean daudelako (modu positiboan edo negatiboan).
- Beharrezkoa delako kontsentsu politiko zabal eta egonkorrak lortzea klima-aldaketaren inguruan, epe luzerako politikak bideratu ahal izateko.

10. Galdera: Nola lantzen da Estrategia eta nola aurreikusten da martxan jartzea?

Klima Aldaketaren aurkako Euskal Estrategia lantzeari dagokionez, hasieratik bilatu dena izan da parte hartzen duten eragile guztiek haren helburuak barneratzea, estrategia honek bertan sartutako erakundeentzat dituen inplikazioak ulertaraziz. Horregatik, Euskadiko Klima Aldaketaren Institutio arteko Kontseilua sortu da, lan-talde egonkor bat eratzeko xedez. Lan-talde horrek jarraipena eman behar die garatu beharreko gai eta ekintzei, Estrategiaren garapen eta ezarpenaren egonkortasuna bermatzearen.



Kontseilu horren partaideak hauexek izango dira:

- Zuzendaritza Batzordea. Maila goreneko organoa izango litzateke, eta haren burua Lehendakaria izango litzateke.
- Batzorde Teknikoa. Haren partaideak honako hauek izango lirateke: Eusko Jaurlaritzako Sailak, Foru Aldundiak, hiru hiriburuetakoko Udalak, EUDEL eta sozietate publiko jakin batzuk.
- Talde Tekniko publiko-pribatua: eragile pribatuak, sozietate publikoak, elkarteak, klusterrak, eta abar.

11. Galdera: Zer dokumentu hartu dira oinarritzat Estrategia lantzeko?

2014 urtean, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak hasi zuen Klima Aldaketaren aurkako Euskal Estrategia prestatzeko prozesua, dokumentu hauek oinarritzat hartuta:

- Fokalizazio estrategikoa Klima Aldaketaren aurkako Euskal Estrategia lantzeko;
- Euskadiko 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren txostena (IEP 2020)
- 2002-2020 epealdirako Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategiaren Ebaluazio Txostena;
- 2008-2012 epealdirako Klima Aldaketaren aurkako Euskal Planaren Ebaluazio Txostena.

12. Galdera: Zein da KAEEn jasotzen den motibazio estrategikoa?

Munduko eta Europako joera nagusiekin bat etorritik, Euskadik klima-politika handinahia abiatu eta gauzatu nahi du, konbentzimendu batean oinarrituta, alegia, ingurumen osasuntsua estu lotuta dagoela gizarte emankor, moderno eta jasangarriaren garapenarekin. Horregatik, gure herrialdeko garapena jasangarria eta orekatua izan dadin eta Europarekin ditugun konexioetan aurrera egin dezan, Jaurlaritzak planteatzen dituen ardatzetako bat klima-aldaketaren aurkako borroka da.

13. Galdera: Zein da Estrategiak planteatzen duen ikuspegi berria?

“Aurrera egitea erresilientea eta karbono gutxikoa den gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-sistemaren bidean”.

- *Klima-aldaketaren ondorioen aurrean blindatuta, gure ekarpena egingo diogu, ahal dugun neurrian, emisioak murriztera mundu osoan egiten den esfortzuari.*
- *Existitzen diren aukerak aprobetxatuz berrikuntza, jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren sorrera, eta ekintzaitza ekonomiko eta soziala sustatzeko.*
- *Garapen bidean dauden herrialdeekin modu aktiboan kolaboratuz, elkartasunetik abiatuta, klima-aldaketaren ondorioen prebentzioan eta murrizketan.*



14. Galdera: Zein dira Estrategia berriak ezartzen dituen konpromisoak?

2050erako KAEEak ezartzen duen ikuspegia hiru konpromisotan zehazten da, hots, helburuak gidatuko dituzten hiru konpromiso hauetan:

- **Esfortzu globalari gure ekarpenarekin laguntzea.** Berokuntza globalaren kausei gure lurraldetik aurre egitea; horretarako, BEGen emisioak murriztuko ditugu bertoko emisio-iturrietan, eta ukitutako sektoreetako inpaktuak minimizatzen zuzendutako ekintzak bultzatuko ditugu;
- **Karbono gutxiko gizarte egokitua.** Lurralde seguru eta osasuntsuaren eta karbono gutxiko ekonomia lehiakorren garapena egituratzea eta bultzatzea. Irtenbide berritzaileak txertatzea, inbertsioak mobilizatzeko energia, garraio eta industriaren alorretan; eta eraginkortasun energetikorako politikak gehiago azpimarratzea;
- **Berrikuntza eta garapen teknologikoa, kima-aldaketa moteltzeko eta berak sortutako egoerara egokitzeko.** Eskura dugun ezagutza aprobetxatzea eta sustatzea, teknologia hipokarboniko berrien eta egokitzapenerako teknologien garapena bultzatzeko, prestakuntzaren eta I+G-aren bidez.

15. Galdera: Zer helburu bilatzen ditu Estrategiak?

KAEEaren 2050rako azken helburuak definitzeko, kontuan hartuko dira bai Europako helburuak eta bide-orriak eta bai IEPak 2020rako sortzen duen babes-egitura. Hori guztia oinarritzat hartuta, KAEEak helburu hauek bilatuko ditu 2050erako:

1. Klima-aldaketa moteltzeko eta berak dakarren egoerara egokitzeko ekintzak txertatzea plangintza publikoan.
2. Administrazioaren ekintza eredugarri eta koordinatua bultzatzea, karbono gutxiko gizarte egokitura daraman eraldaketa lortzeko.
3. Euskal gizartearen eragile guztien erantzunkidetasuna bultzatzea, moteltze- eta egokitze-ekintza guztietan.
4. Ikerketa eta garapen teknologikoari laguntzea, BEGen emisioak sektore guztietan murriztu ahal izateko eta, hortaz, lurraldeak klima-aldaketaren aurrean duen urrakortasuna ere murrizteko.
5. Klima-aldaketari buruzko tokiko ezagutza egokitzea, erabakiak hartzeari begira.

16. Galdera: Nola lotzen dira KAEEan ezartzen diren helburuak Eusko Jaurlaritzaren Plan estrategikoetan ezarritako helburuekin?

KAEEa Jaurlaritzaren Estrategia bat da; beraz, Jaurlaritza osoa inplikatzeko du. Estrategiak inplikatzeko dituzten Eusko Jaurlaritzako Sailak eta beraren beste erakunde batzuk, Udalak eta Foru Aldundiak, eta hainbat erakunde publiko eta pribatu ere; horregatik, modu aktiboan parte hartuko dute sorkuntza bateratuko prozesu



koordinatu eta elkarrekiko batean, 2050erako KAEEa Lehendakaritzaren gidaritzapean lantzeko.

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzak badaki, ondo jakin ere, klima-politika erantzunkidetasunean oinarritu behar dela, berez duen zeharkako izaeragatik. Horrek, administrazio guztiek esku-hartze koordinatua eskatu ez ezik, eragile sozial, ekonomiko eta zientifiko-teknologikoen eta –bereziki- herritarren parte-hartzea ere eskatzen du. KAEEak Jaurlaritzaren helburuen artean dagoen elkarlotura eta osagarritasun hori jasoko du.

17. Galdera: Nola lotzen dira KAEEan ezartzen diren helburuak EBko 7. Ingurumen Programan ezarritako helburuekin?

EBko Ingurumen Programak Euskadiko ingurumen-politikaren orientabide eta gidatzat hartu izan dira betik. Alde horretatik, *“2050ean ekonomia hipokarboniko lehiakorra izatera zuzendutako Bide-orria”* baliagarria izan da joerak identifikatzeko, lehentasunak ezartzeko eta prozesua orokorrean orientatzeko. Halaber, Programa gidatzat hartuko da 2020 eta 2030erako bitarteko helburuak ezartzeko.

18. Galdera: Nola lotzen dira KAEEan ezarritako helburuak Tokiko Administrazioan ezarritakoekin (Foru Aldundiak eta Udalak)?

Tokiko administrazioek eskumen garrantzitsuak dituzte ingurumenaren alorrean eta klima-aldaketan eragin nabaria duten beste alor batzuetan, hala nola, lurraldearen antolamenduan, errepide-garraioan, ekonomiaren sustapenean, eta abar. KAEEak, modu koordinatu eta parte-hartzailean, gidalerro estrategikoak ezartzen ditu Euskal Administrazio Publiko osoa orientatzeko.

19. Galdera: Zer adierazle ezarriko dira estrategiaren jarraipena egiteko?

Aginte-koadro integral bat ezarriko da, eta horrek modu zehatz eta gardenean ezarriko du zer helburu lortu nahi diren. Helburuak koherenteak izango dira lehentasunekin eta aurreikusitako jardurekin.

Sistema-mapa bat landuko da sektore bakoitzaren ekintza konkrituak identifikatzeko, eta mapa hori oinarritzat hartuko da jarraipenaren adierazleak definitzeko, bai inpaktuen adierazleak eta bai egokitzapen-neurrien adierazleak. Sistema-mapetatik abiatuta definituko diren adierazleen helburua bikoitza da: alde batetik, Klima Aldaketaren ondorioen monitorizazioa eta jarraipena egitea; eta, bestetik, gauza bera egitea Estrategiarekin berarekin.



20. Galdera: Nola txertatuko da genero-ikuspegia KAEEa lantzeko prozesuan?

Genero-ikuspegia modu integral eta sistemikoan kontsideratzen da KAEEan. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna premisa bat da, hasieratik beretik kontuan hartu dena estrategia diseinatzeko eta lantzeko prozesuan.

21. Galdera: Noizko dago aurreikusita Estrategiaren onarpena?

2015eko Ekainean

22. Galdera: Zer onura espero dira KAEEaren aplikaziotik?

KAEEtik espero diren onura batzuek gai hauekin dute zerikusia:

- Ekintza kolektiboari maila globalean egiten zaion ekarpena, berotegi-efektuko gasen emisioen igoerari aurre egiteko;
- Klima-aldaketatik ondorioztatzen diren kalteen prebentzioa, hala nola, itsas mailaren igoera eta uholdeen ugalketa, edateko uraren baliabideen murrizketa, osasunarentzako arriskuak, ekosistemen aldaketa, nekazaritzan edo turismoan oinarritutako ekonomiek paira litzaketen kalteak, su-arriskuen eta muturreko klima-fenomenoen ugalketa (ekaitzak, bero-boladak), horrek aseguruaren aldetik sortuko lituzkeen kostu eta gastuen igoera, eta abar.
- Onuren iturria, saihestutako kalteen ikuspuntutik ere. CO2 emisioen murrizketa lagungarria izango da airearen kalitatea hobetzeko, eta irabazi handiak ekarriko ditu osasunaren eremuan. Gainera, azterlan gehienek erakusten dutenez, klima-aldaketaren aurkako politikak ondorio positiboak izango ditu enpleguan; adibidez: energia berriztagarrien edo puntako teknologien eremuan.
- Merkatuko aukerak aprobetxatzea, berrikuntza oinarritzat hartuta. Materialak aurrezteko, hondakinak lehengai gisa aprobetxatzeko, eta emisioak murriztea eta enplegua eta aurrerabidea sortzea ahalbidetzen duten produktu eta zerbitzuak sortzeko.